

Kriseiluaren argipean  
Anxel Fole  
Literatura Unibertsala



Hasieran, liburuko sarerra irakurtzean, pittin bai kezkatu nintzen, susmo txarreko errazkeria zerakutsaten hainbat esaldirekin topo egin bainuen. Gero, aipatu sarrera irakurtzen amaitu ostean, liburuko lehen atalak pentsarazi zidan geografia-lezioak emango zizkidan kalaka-emaile horietako baten aurrean nengoela. Baina bigarren sarreratxoa igarota, onartu beharra daukat gauzak animatzen hasi zirela. Ipuina ondo egina zegoen. Izaera folklorikoko liburu baten aurrean gaude, Galiziako kulturen – ondare mitiko gisa– jaso eta errotua. Ez da asmo handiko liburu. Atsegina bai, ordea, eta ipuin bakoitzak garamatza egileak eraman nahi gintuen lekura. Anxel Foleri (1903-1986) “eroso” ikusten zaio kontakizun bakoitzean, eta ez dario artifizialtasunik –beti eskergarri izaten dena, batez ere kutsu etnografikoa duten testuekin ari garenean–. Badago eszena bat (hainbatetan errepikatua) Akira Kurosawa-ren film bat gogora ekarri zidana. Filmean basoko pertsonaiak osatutako prozesio bat agertzen zen eta aieru txarrekoa zen hura ikusten zuten guztientzat. Kultura zeltikoan (eta Galiziak zeltaren eragin handia du, noski) antzeko pertsonaiak ere badaude; liburuan mota horretako prozesio bat aipatzen da hainbatetan, hau ere gaueko pertsonaiek osatua, Galiziako baso usu eta zabalekiko giroan sakon txertatua, eta hura ikusteko adur txarra daukanaren heriotza iragartzen duena. Bi mito hauen artean badago antzekotasun harrigarri bat, eta deigarria zait, bata Japoniar kulturari eta bestea kultura zeltari/galziarrari atxikita egotea. Nola dago halako unibertsaltasun bat gizakion beldurrak islatzen dituzten mitoetan, eta batez ere heriotzarekin nolabaiteko lotura duten horietan...?